



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2007ko martxoaren 28a

32. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Artaxoako Udalaren herrilurreko 158.972,20 metro koadro onura publikoko deklaratu eta haien desafektazioa onesten duena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Adierazpen instituzionala, Indiako Gobernuak Dohako Adierazpenean ezarritako malgutasunak aplikatzeko daukan eskubidea aldezteko. Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, amuarrainaren egoerari eta Nafarroako ibaien zaintzeari eta birlandatzeari buruzkoa, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egin (6. or.).
- Galdera, euskararen presentzia Interneten areagotzeko, eduki digitalak sortuz, Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, teknologia berrietan euskarazko baliabideak, tresnak eta aplikazio berriak garatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, kartografian, hizkuntz paisaian eta abarretan euskararen erabilera hedatzeari bultzada emateko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Spanair konpainiak Noaingo aireportuan jarduteko hartutako konpromisoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, 643/2000 kasazio-errekurtsoan Auzitegi Gorenak emandako epaia betetze aldera Nafarroako Gobernuak egin dituen edo egiten ari den tramiteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egin [\(12. or.\)](#).
- 2007ko lan-egutegiaren aldaketa [\(20. or.\)](#).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Artaxoako Udalaren herrilurreko 158.972,20 metro koadro onura publikoko deklaratu eta haien desafektazioa onesten duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko martxoaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2007ko martxoaren 26an hartutako erabakiaren bidez, Artaxoako Udalaren herrilurreko 158.972,20 metro koadro onura publikoko deklaratu eta haien desafektazioa onesten duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 155. artikuluan ezarritakoarekin bat, eta Eledunen Batzarrarekin bat, hona

ERABAKIA:

1. Artaxoako Udalaren herrilurreko 158.972,20 metro koadro onura publikoko deklaratu eta haien desafektazioa onesten duen Foru Lege proiektuaren tramitazioa zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkura egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Foru Lege proiektua, Artaxoako Udalaren herrilurreko 158.972,20 metro koadro onura publikoko deklaratu eta haien desafektazioa onesten duena.

ZIOEN AZALPENA

Artaxoako Udalak eskatu du herrilurreko 158.972,20 metro koadro onura publikoko deklaratu eta desafekta daitezela, ondoren 37.181,34 metro koadro osatzen duten lurrekin trukatzeko, bertan jarduera ekonomikoetarako eremu bat instalatu ahal izateko.

Jarduera ekonomikoen eremu hori instalatu nahi da Udal planean aurreikusitako industria lurzoru guztia garatua edo garapen bidean dagoelako eta udalerrian enpresak irekitzeko eskaera dagoelako eta, etorkizunean ere, egonen delako.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 140. artikuluko 5. idatz-zatian xedaturikoaren arabera, Artaxoako Udalak desafektatzeko asmoa duen eremuak lurzati txikiaren mugak gainditzen dituzenez, foru lege bidez onetsi behar da.

1. artikulua. Onura publikoaren deklarazioa.

Artaxoako Udalaren herrilurreko 158.972,20 metro koadro onura publikoko deklaratu eta haien desafektazioa onesten da. Eremu hori Artaxoako katastroko lurzati hauei dagokie: 78.002,77 metro koadro, 9. poligonoko 571. lurzatiak dira; 11.980 metro koadro, 9. poligonoko 573. lurzatiak; 23.046 metro koadro, 5. poligonoko 755. lurzatiak; 17.507,99 metro koadro, 5. poligonoko 757. lurzatiak; 17.770,09 metro koadro, 5. poligonoko 758. lurzatiak, eta 8.980 metro koadro, 5. poligonoko 765. lurzatiak. Lur horiek herrilurtzat joko dira foru lege honetako 2. artikuluko baldintzetan trukatu arte.

2. artikulua. Zuzenean trukatzeko baimena.

Artaxoako Udalari baimena ematen zaio aurreko artikuluan aipatutako lurak ondoko hauekin trukatzeko: Beatriz Ayestarán Ciriza andrearen 13.871 metro koadro, 1. poligonoko 1929. lurzatikoak; Joaquín Iriarte Ayestarán jaunaren 5.126,86 metro koadro, 1. poligonoko 1926. eta 1927. lurzati-
etakoak; Josefina Ayestarán Ciriza andrearen 18.182,68 metro koadro, 1. poligonoko 1928. eta 1929. lurzati-
takoak; trukearen helburua jarduera ekonomikoen eremu bat instalatzea da. Baimena ondoko baldintza hauek betetzearen pean egonen da:

a) Trukea egiteko itunetako klausula batek xedatu dezala lurak herri ondarera itzuliko direla, baldin eta desafektatzera bultzatu zuten xedeak edo desafektazioaren baldintzak desagertu edo bete gabe uzten badira.

b) Itzultze klausula hori ager dadila kontratua formalizatzeko agiri publikoetan eta horiek Jabetza Erregistroan inskribatu daitezela.

c) Artaxoako Udalaren herrilurreko 158.972,20 metro koadro desafektatzeko 2006ko otsailaren 24an onetsi zuen baldintzen agirian jasotako zehaztapenak betetzea. Desafektatutako eremua Artaxoako katastroko lurzati hauei dagokie: 9. poligonoko 571. lurzatia, 9. poligonoko 573. lurzatiaren puska bat, 5. poligonoko 755. lurzatia, 5. poligonoko 757. lurzatia, 5. poligonoko 758. lurzatia eta 5. poligonoko 765. lurzatiaren puska bat.

d) Foru lege hau onesten denetik 5 urteko epean, Artaxoako Udalak baldintza hauek betetzea: 1) 23.060 puntu lortzeko moduko eremua erostea, trukatu beharreko lurren balorazioaren arabera; eta 2) Nafarroako Ubidearen eremuko lurak ureztaketako lur bihurtzeko prozesuetan sartuta ez dauden herrilurreko lurzati-
en nekazaritza gaitasuna hobetzeko lanak egitea.

e) Erosiko diren herrilur berri horiek hautatu eta hobekuntzak egin aurretik, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko Herrilurren Atalaren onespena beharko da.

f) Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak martxoaren 1ean emandako 106/2007 Foru Aginduan xedatutakoa betetzea.

Azken xedapenak

Lehenena. Aplikazio eta garapenerako xedapenak.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio behar adina xedapen eman ditzan foru lege hau aplikatu eta garatzeko.

Bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen instituzionala, Indiako Gobernuak Dohako Adierazpenean ezarritako malgutasunak aplikatzeko daukan eskubidea aldezteko.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2007ko martxoaren 26an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak, Europako Parla-
mentuarekin eta mundu osoko milaka ahotsekin
bat, Indiako Gobernuak Dohako adierazpenean
ezarritako malgutasunak aplikatzeko duen eskubi-
dea aldarrikatzen du; horretaz gain, patente esku-
bideen garrantzia onartuta ere, dei egiten die

industria farmazeutiko guztiei, bereziki Novartis
enpresari, beren merkataritza interesak mundu
osoko milioika pertsonen bizitza eta osasunaren
aurretik jar ez ditzaten; izan ere, pertsona horiek
behar dituzten kalitatezko medikamentuak lortze-
ko duten bide bakarra da botika horiek prezio
merke eta arrazoizkoan eskura izatea.”

Iruñean, 2007ko martxoaren 26an

Lehendakaria, Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

Galdera, amuarrainaren egoerari eta Nafarroako ibaien zaintzeari eta birlandatzeari buruzkoa.**FORU PARLAMENTARI AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko martxoaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egindako galdera, amuarrainaren egoerari eta Nafarroako ibaien zaintzeari eta birlandatzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko martxoaren 26an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Amuarrainaren egoerak eta, oro har, Nafarroako ibaiak zaindu, babestu eta birlandatzeak, gure iritziz, departamentuak erantzun batzuk eman behar izatea eskatzen du.

1.- Legegintzaldi honetan, zein izan da arrainkumeen haztegien jarduketa?

2.- Legegintzaldi honetan, zenbat birpopulatze egin da? Zein ibaitan? Zein arrain motarekin eta noiz? Etengabeko birpopulatzerik egin ez bada, zergatik?

3.- Legegintzaldi honetan, zer urrats egin dira ibaiak garbitzeko eta mantentzeko? Zein ibaitan? Zein enpresak edo langilek egin dute? Noiz egin dira? Zenbat iraun dute?

4.- Arrantza egiteko lizentziak direla-eta, zenbateko dirusarrera sortu da? Zertarako erabili dira dirusarrera horiek?

5.- Espartza Zaraitzuko haztegian, zenbat amuarrainkume zeuden 2006ko urtarrilaren 1ean eta 2007ko urtarrilaren 1ean?

6.- 2003, 2004, 2005 eta 2006 urteetan, zenbat zaindari edo departamentuko langile aritu dira ibaiak mantentzen, birpopulatzen, zaintzen edo babesten? Zenbat aurreikusten dira 2007rako?

Iruñean, 2007ko martxoaren 21ean

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, euskararen presentzia Interneten areagotzeko, eduki digitalak sortuz, Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du euskararen presentzia Interneten areagotzeko, eduki digitalak sortuz, Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak euskarak Interneten duen presentzia areagotzeko legegintzaldi honetan egin dituen urratsei buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna.

1) Zer urrats egin ditu Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan euskarak Interneten duen presentzia, eduki digitalen sorreraren bidez, Interneten areagotzeko?

Legegintzaldi honetan, Nafarroako Gobernuak proiektu kopuru adierazgarria bultzatu du; proiektu horiek zuzendu dira Nafarroako Foru Komunitateko eremuan Internetekin lotutako eduki eta zerbitzu digitalak garatzera eta eduki eta zerbitzu horietara sartzera.

Lehenbizi bultzatu diren proiektuak informazioaren gizarte arloko beharrik oinarritzkoenak asebetzera zuzendutakoak izan dira, esate baterako banda zabaleko plana.

Banda zabaleko sareak ahalbidetu du konektibitate-zerbitzuak eramatea azpiegiturak hedatzeko zailtasun gehien zuten Nafarroako landa eremuetara, besteak beste Pirinioetako ibarretara. Banda zabaleko konektibitate-zerbitzu horiek ahalbidetzen dute eremu horietatik hala Interneteko edukietara sartzea nola eduki horiek eskura izatea. Sartzeko horiek edo edukiak argitaratzea euskaraz edo beste edozein hizkuntzatan egin daitezke, kasu bakoitzean hiritarrek aukeratzeko duten bezala.

Gauza bera esan daiteke beste proiektu batzuei buruz: banda zabalera konektatzeko dirulaguntza kanpaina, mikroenpresa txiki eta ertainak digitalizatzeko laguntzak, bikaintasundun zentroak, egoera ahulean dauden kolektiboentzako prestakuntza kanpaina, atari eleanitza, eta abar.

Jarduera mota dela-eta eskuliburuak argitaratu diren kasuetan, esaterako egoera ahulean dauden kolektiboentzako prestakuntza ikastaroetan, hala gaztelaniaz nola euskaraz argitaratu dira.

Ondorioz, teknologia berriek gehiago irekitzea ahalbidetzen digute. Urrunago, leku gehiagotara eta azkarrago heltzea errazten digute. Proiektu guztiak Nafarroa osora zuzenduta daude, hala eremu euskaldunera nola mistora edo ez-euskaldunera; hori dela-eta, nolabait, zerbitzu horiek eskaintzean, Interneteko eduki digitalak garatzea eta horietara sartzeko errazten ari gara, gaztelaniaz nahiz euskaraz.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 190. artikulua 1. idatz-zatian xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 14an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Galdera, teknologia berrietan euskarazko baliabideak, tresnak eta aplikazio berriak garatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du teknologia berrietan euskarazko baliabideak, tresnak eta aplikazio berriak garatzeko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak euskararen erabilera informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien arloan garatzeko legegintzaldi honetan egin dituen urratsei buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna.

1) Zer urrats egin ditu Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien arloan euskarazko baliabide, tresna eta aplikazio berriak garatzeko?

Legegintzaldi honetan, Nafarroako Gobernuak proiektu kopuru adierazgarria bultzatu du; proiektu horiek zuzendu dira Nafarroako Foru Komunitateko eremuan Internetekin lotutako eduki eta zerbitzu digitalak garatzera eta eduki eta zerbitzu horietara sartzera.

Gogoratzeko batzuk aipa ditzaket: banda zabaleko sarea, mikroenpresa txiki eta ertainak digitalizatzeko laguntzak, bikaintasundun zentroak, egoera ahulean dauden kolektiboentzako prestakuntza kanpaina, atari eleanitza, eta abar.

Proiektu horiek guztiak Nafarroa osora zuzenduta daude, hala eremu euskaldunera nola misto-
ra edo ez-euskaldunera.

Aplikazio, baliabide eta tresna informatikoak garatzean, arreta berezia jarri da hiritarrek telematikoki erabiltzen dituzten zerbitzuetan euskararen erabilera errazteko: Nafarroako ataria, zergen aurkezpen telematikoa, Nafarroako Aldizkari Ofiziala, turismoa, hezkuntza, albisteak, eta abar.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 190. artikulua 1. idatz-zatian xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 14an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Galdera, kartografian, hizkuntz paisaian eta abarretan euskararen erabilera hedatzeari bultzada emateko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du kartografian, hizkuntz paisaian eta abarretan euskararen erabilera hedatzeari bultzada emateko Nafarroako Gobernuak egindakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko urriaren 27ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan euskararen erabilera zenbait arlotan bultzatzeko egin dituen urratsei buruz. Hona Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

Galdera:

Zer urrats egin ditu Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan, toponimia normalizatzeko lanekin jarraitzeaz gain, euskaren erabilera kartografian, bide seinaleetan eta hizkuntz paisaian bultzatzeko?

Erantzuna

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari dagokionez, aipatu behar da bere eskumeneko arloetako jarduketetan, bide seinaleei eta kartografia egiteari dagokienean, beti bete izan dela euskararen erabilerari buruzko indarreko legeria; horretaz gain, esan behar da Nafarroako Gobernuak onetsi duen toponimia kartografian sartu dela eta "Nafarroako Toponimia eta Mapagintza" izenekoa osatzen duten liburukietan argitaratu dela.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 8an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Spanair konpainiak Noingo aireportuan jarduteko hartutako konpromisoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Spanair konpainiak Noingo aireportuan jarduteko hartutako konpromisoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko azaroaren 6ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe jaunak galdera egin du Spainair konpainiak Noingo aireportuan jarduteko hartu duen konpromisoari buruz. Hona Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Galdera:

Urriaren 22ko Diario de Navarraren 17. orrialdean agertu zen Spanair hegazkin-konpainiak Nafarroako aireportuan 4 urtez jarduteko idatzizko konpromisoa sinatu duela Herri Lan Departamen-

tuarekin. Zein da konpromiso horren izaera eta eduki osoa? Noiz sinatu zen?

Erantzuna:

Egunkariko informazioan hori agertu arren, bai-etzapen hori ez zela zuzena aipatu behar da. Spainiar konpainiak, Espainako erregioen arteko aireko zerbitzuen eremua zabaltzeko daraman politikaren barruan, Iruñetik jardutea erabaki du; beti ere, bere erabakiak hartzeko duen autonomia esparruaren barruan. Nafarroako Gobernuak zuzemenak egin ditu hegazkin-konpainia horrekin eta bestelako aireko operadoreekin Nafarroa hegazkinen helmuga egoki gisa aurkezteko asmoz. Zuzemen horiek direla-eta eta konpainiak berak zuen interesari

esker hartu da erabaki hori. Beste kontu bat da Nafarroako Gobernuak hegazkin-konpainia horren baliabideak euskarri hartuta turismoa eta erakundeak sustatzeko akordioak egin ditzakeela, Espainiako beste autonomia batzuetako gobernuak beste hegazkin-konpainia batzuekin egin duten bezala.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, 643/2000 kasazio-errekurtsoan Auzitegi Gorenak emandako epaia betetze aldera Nafarroako Gobernuak egin dituen edo egiten ari den tramiteei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du 643/2000 kasazio-errekurtsoan Auzitegi Gorenak emandako epaia betetze aldera Nafarroako Gobernuak egin dituen edo egiten ari den tramiteei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko azaroaren 6ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Auzitegi Gorenak 643/2000 kasazio errekurtsoa dela-eta emandako epaia betetzeko Nafarroako Gobernuak egin dituen edo egiten ari den urratsei buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak emandako informazioaren arabera, ondoko urrats hauek egin dira:

2006ko uztailaren 27an jakinarazi zen aipatu epaiaren irmotasuna eta, hortaz, administrazio-espeditentea Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusira itzuli zen.

2181/2006 Ebazpenaren bidez, honakoa egin da:

– Alde batetik, errekurtsoa jarri zuten hiru pertsonak Foruzaingoko kide izendatzea “hautapen prozesuan lortutako puntuazioagatik dagokien hurrenkeran eta Funtzio Publikoaren eta Antolaketaren zuzendari nagusiak 1996ko otsailaren 14an emandako ebazpenaren bidez Foruzaingoko kide izendatutako 48 pertsonen ondorio berdinekin”

Izendapen hori dela-eta, hiru interesdunek Nafarroako Foruzaingoko beren lanpostuen jabetza hartu zuten 2006ko irailaren 28an, eta orduz goerotik Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan polizia gisa ari dira lanean.

– Bestalde, hiru interesdunei eskatzea ekartzeko “Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrek emandako lan bizitzari buruzko txostena, 1996ko martxoaren 1etik gaur egun arteko epea hartuko duena; halaber, besteren konturako aritu badira lanean, kontratua egin zien enpresak edo administrazio publikoak egindako ziurtagiria, lan horretan aritutako epean jasotako lansariak ziurtatuko dituena; hori guztia, Funtzio Publikoaren eta Antolaketaren zuzendari nagusiak 1996ko otsailaren

14an emandako ebazpenaren bidez izendatutako Nafarroako Foruzaingoko 48 polizia lanpostuen jabetza hartu zuten egunetik hiru interesdunek jaso ez dituzten soldata atzerapenak kitatu ahal izateko”.

Interesdunek eskatutako dokumentazioa behin aurkeztuta, gaur egun, errekurtsua jarri zutenei jaso ez zituzten lansariak ordaintzeko beharrezkoa den administrazio-izapidetzea osatzeko asmoz, nahitaezko diren urratsak egiten ari dira; horretarako, zehaztu behar da aipatu epean foruzain gisa jasoko zuketen diru kopurua zenbatekoa den; epaiak betetzeko kontusailean kreditu gehikuntza

egiteko beharrezkoa den administrazio-espeditatearen izapideak egin behar dira; ateratzen den diru kopurua ordain dadin agintzen duen ebazpena onetsi behar da; eta azkenik, aipatu kitapen horren dirua interesdunen nominetan sartu behar da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 23an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 5ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Nafarroako toki sektore publikoari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2007ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (12. or.).
 - II. Helburua (12. or.).
 - III. Norainokoa eta mugak (13. or.).
 - III.1. Norainokoa (13. or.).
 - III.2. Mugak (15. or.).
 - IV. Ondorioak (15. or.).
 - IV.1. Nafarroako toki sektore publikoaren egitura (15. or.).
 - IV.2. Nafarroako toki entitateak 2004ko ekitaldian arautzen dituen arau-multzoa (16. or.).
 - IV.3. Egindako fiskalizazio txostenak (18. or.).
 - IV.4. Nafarroako toki sektore publikoaren finantza egoera 2004an (18. or.).
 - 1. gehigarria. Nafarroako toki sektore publikoaren finantza egoerari buruzko 2004ko txostena.
 - 2. gehigarria. Nafarroako udal guztien 2004ko finantza egoera.
- Oharra: Aipaturiko gehigarriak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu

Orokorretako bulegoetan eta ondoko webgunean:
www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Aurreko urteko kontuekin hasitako sistemari jarraipena emanez, txostenak honako egitura dauka:

- Sarrera.
- Helburuak.
- Norainokoa eta mugak.

• Ondorio nagusiak, Nafarroako toki sektore publikoaren egiturari, Nafarroako toki entitateen arau-esparruari eta Nafarroako toki sektorearen finantza egoerari buruzkoak.

• Gehigarri bat, aurreko urtekoaren antzera egina. Toki Administrazioiko Departamentuak Nafarroako toki sektore publikoaren finantza egoerari buruz 2004an egindako txostena da.

Gehigarri honek bi atal dauzka. Lehenbizikoan toki sektore osoaren datu erantsiak jasotzen dira (udalak eta kontzejuak, eta mankomunitateak; bigarrenean, berriz, aurrekontu likidazioak eta udalen araberrako zenbait adierazle jasotzen dira.

Ekitaldi honetan, toki jarduerari buruzko informazio hobea eskaintzeko, informazio gehiago eman dugu, gastuen sailkapen funtzionalaren araberrako exekuzioa eta zergen bilketa ere eskainiz, eta adierazle gehiagotako datuak jasoz.

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearekin eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat etorriz, Nafarroako toki sektore publikoari buruzko 2004ko ekitaldiko txostena egin da.

Txosten hau eginez, Comptos Ganberak ondoren aipatzen diren helburuak lortu nahi ditu:

a) Parlamentuari, administrazio publikoei eta Nafarroako iritzi publikoari Nafarroako toki entitateen antolamenduari eta egoera ekonomikoari buruzko ikuspegi bat ematea, baita haien jarduera legezketasun-printzipioaren arabera den, Comptos Ganbera honek xede horretarako egin dituen lanen arabera.

b) Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legeko (aurrerakoan TAFL) 350.2 artikuluko esaten duena betetzea, hark ezartzen baitu derri-gorrezkoa dela urtero bidaltzea Nafarroako Parlamentuari eta Gobernuari Comptos Ganberak toki esparruan egin dituen jarduketan berri ematen duen laborpen-txostena.

c) Nafarroako Parlamentuari eta administrazio publikoei proposatzea, hala badagokio, toki entitatei kudeaketa hobetzeko bidea emanen dien neurri orokorren multzo bat aurrera eraman dezaten.

d) Nafarroako udal guztien kontuen laborpena aurkeztea, laborpen horretan jarriz haien egoera ekonomiko-finantzarioaren azterketa erraztuko duten adierazleak.

Toki entitateek ekitaldi bakoitzeko kontu orokorak onetsi eta gobernuari igortzeko Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak ezarritako epeak eta informazio horren tratamenduaren zailtasuna direla eta, txosten hau ezin izan da egin 2006ko bigarren sei hilekoa baino lehen.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

III.1. NORAINOKOA

Lan hau egiteko ondoko dokumentazioa aztertu dugu:

a) Toki sektore publikoaren egitura. Nafarroako Estatistika Institutuaren eta Toki Administrazioiko Departamentuaren informazioa baliatu dugu, bai eta Nafarroako Comptos Ganberarena berarena ere.

b) Arau-esparrua. Ekitaldian zehar onetsi eta argitaratu den araudia aztertu da.

c) Fiskalizazio txostenak. Comptos Ganberak 2004ko ekitaldiari buruz egin eta argitaratutako ondoko txostenak baliatu dira:

Fiskalizaturiko udalak, <5.000 biztanle	Ekitaldia	NAO. Zk. (data)	Biztanleak, 2004-01-01eko zentsuaren arabera	Aitorturiko eskubideak (eurotan)	Aitorturiko betebeharrak (eurotan)
Ledea	2004	37 (2006/04/21)	344	408.460,00	615.478,00
Leitza	2004	26 (2006/03/29)	2.901	2.796.206,18	2.477.478,64
Gares	2004	75 (2006/09/11)	2.612	1.934.308,00	2.019.955,00
Guztira			5.857	5.138.974,18	5.112.911,64

Fiskalizaturiko udalak, >5.000 biztanle	Ekitaldia	NAO. Zk. (data)	Biztanleak, 2004-01-01eko zentsuaren arabera	Aitorturiko eskubideak	Aitorturiko betebeharrak
Altsasu	2004	123 (2005/11/25)	7.377	7.094.853,00	7.350.704,00
Antsoain	2004	4 (2006/01/27)	9.526	14.118.565,77	11.261.564,28
Barañain	2004	31 (2006/04/07)	22.529	14.970.945,00	15.488.107,00
Baztan	2004	10 (2006/02/13)	7.707	8.806.898,00	8.051.968,00
Bemiozar	2004	31 (2006/04/07)	8.314	6.559.364,00	5.622.633,00
Burlata	2004	5 (2006/02/01)	18.040	13.909.197,98	14.301.409,67
Cintruénigo	2004	49 (2006/05/18)	6.664	8.061.730,00	8.180.503,00
Corella	2004	67 (2006/07/03)	7.495	5.509.311,00	5.463.837,00
Lizarra	2004	4 (2006/01/27)	13.562	11.254.669,00	10.588.064,00
Iruña	2004	31 (2006/04/07)	191.865	185.520.633,90	181.756.422,92
Azkoien	2004	49 (2006/05/18)	5.681	5.532.861,00	4.968.525,00
Tafalla	2004	5 (2006/02/01)	10.782	12.508.496,00	14.834.765,00
Tutera	2004	5 (2006/02/01)	31.659	33.979.120,87	34.371.869,31
Atarrabia	2004	49 (2006/05/18)	10.179	9.126.000,00	9.571.000,00
Zizur Nagusia	2004	5 (2006/02/01)	12.833	10.785.188,77	8.477.441,00
Guztira			364.213	347.737.834,29	340.288.813,18

Fiskalizaturiko 18 entitate horien populazioa 370.070 biztanlez osatua da, hau da, foru erkidegoko 2004ko urtarrilaren 1eko zentsuan dauden 584.734 biztanleen ehuneko 63,3.

Udal horien menpeko 29 erakunde autonomo ere aztertu dira, hau da, 2004ko urtarrilaren 1eko 75en ehuneko 39.

Fiskalizatu den erakunde autonomo horien aurrekontu betetzea 41.174.318,55 eurokoa da aitorturiko eskubideen kasuan, eta 43.369.500,53 eurokoa aitorturiko betebeharrean. Aitorturiko eskubide eta betebeharrak hauek dauzkate:

Toki entitatea	Erakunde autonomoa / Patronatua	Aitorturiko eskubideak	Aitorturiko betebeharrak
Altsasu	Aita Barandiaran zahar-etxea	676.951,00	676.074,00
	Musika Patronatua	174.091,00	170.731,00
Antsoain	Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatua	118.501,11	459.725,68
	Euskara sustatzeko Patronatua	43.128,85	82.387,57
	Sexu Hezkuntza eta Jaiotza-kontrolerako Patronatua	513,63	4.604,48
Barañain	Lagunak Udal Zerbitzua	1.652.972,00	1.656.577,00
	"Luis Morondo" Musika Eskola	797.381,00	771.928,00
Baztan	Francisco Joaquín de Iriarte zahar-etxea	1.374.356,00	1.372.503,00
	Baztan Ilkastola	422.480,00	420.359,00
Burlata	Kirol Patronatua	1.271.728,21	1.824.510,03
	Kultura Patronatua	51.174,38	567.587,46
	Musika Patronatua	493.367,45	655.836,85
Cintruñigo	Uren Udal Batzarra	1.570.494,00	1.647.478,00
	San Francisco de Asís Udal Patronatua	1.349.706,00	1.441.494,00
Corella	San José zahar-etxea	685.598,00	682.894,00
Lizarra	Musika Patronatua	159.153,00	267.798,00
Iruña	Hirigintza Gerentzia	18.449.000,00	17.492.000,00
	Haur Eskolak	4.470.000,00	4.837.000,00
Azkoién	Musika Eskola	196.369,00	168.022,00
Tafalla	Musika Eskola	210.655,00	410.008,00
	Kultura Patronatua	32.437,00	354.423,00
	Kirol Patronatua	189.663,00	435.613,00
Tutera	Uren Udal Batzarra	2.788.335,03	3.065.473,09
	Castel-Ruiz Kulturgunea	1.679.606,69	1.618.073,02
Atrarrabia	Kirol Patronatua	896.000,00	886.000,00
Zizur Nagusia	Musika Eskolaren Patronatua	360.736,34	335.142,35
	Kultura Patronatua	429.145,09	414.123,04
	Ardoi Kirol Patronatua	459.299,77	505.329,96
Gares	Udal Musika Eskola	171.476,00	145.805,00
	Guztira	41.174.318,55	43.369.500,53

d) Finantza egoera. Toki Administrazio Departamentuak emandako informazioan oinarrituta egin da (informazioa txosten honen gehigarri gisa doa).

III.2. MUGAK


Ez da toki sektore publikoaren bateratzeari buruzko araurik egin; hori dela eta, ezin izan dugu toki entitateen finantzaketako egoera-orri bateraturik lortu; hori muga bat izan da txosten hau egiteko.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako toki entitateetako, Nafarroako Gobernu Toki Administrazio Departamentuko eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko langileei, lan hau egiteko eskaini diguten laguntzarengatik.

IV. ONDORIOAK

IV.1. NAFARROAKO TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN EGITURA

2004ko abenduaren 31n, honelaxe osaturik dago Nafarroako toki sektore publikoa:



Jarraian, Nafarroako toki sektore publikoak 2000, 2001, 2002, 2003 eta 2004ko abenduaren 31n duen egitura azalduko dugu, fundazioak kontuan hartu gabe:

Entitatea	2000	2001	2002	2003	2004
Udalak	272	272	272	272	272
Kontzejuak	363	362	362	362	358
Mankomunitateak	59	62	64	64	64
Udal batasunak	9	10	10	10	10
Partzuergoak	8	8	8	11	11
Erakunde autonomoak (udalak eta mankomunitateak)	76	75	76	75	75
Udalen merkataritza-sozietateak	9	9	10	13	14
Mankomunitateen merkataritza-sozietateak	5	5	5	5	5
Guztira	801	803	807	812	809

Iturria: Datuak aurreko txostenetatik, Nafarroako Estatistika Institututik eta Toki Administrazio Departamentutik atera dira.

Hiru entitate gutxiago dago, guztira. Hona xehetasunak:

	Alta	Baja
Kontzejuak		Sarriguren, Agorreta, Urtasun eta Murillo-Berroia
Erakunde autonomoak	“La Esperanza” gizarte etxea	Erriberriko Udaleko Kultur Patronatua
Merkataritza sozietateak	Hirigintza Kudeatzeko Leitza Lantzen Elk.	

Comptos Ganbera honen iritziz –behin eta berriro adierazi izan duen bezala–, arazoa ez da, berez, entitate-kopurua, baizik eta botere publikoek nahi izatea Nafarroako Toki Administrazioaren ereduak gaurkotu gabe jarraitzea. Eredu horrek bateragarri egin beharko ditu herritarren gaur egungo eskaerak eta kudeaketa publiko zentzuzkoa.

Gure gomendioa da lehenetsunez eta presaz aplika daitezela Nafarroako Toki Administrazioaren gaur egungo egoera arazoizkoagoa izan dadin beharrezkoak diren neurri administratibo eta legegintzakoak. Neurri horiek baliagarri izan beharko dute XXI. mendean herritarren beharrei erantzun eraginkor eta efizientea emateko, eta xede hori erdiesteko behar diren finantza baliabideak edukitzeko.

Neurri horiek Nafarroako gizarte osoan eta haren botere publikoetan izanen dute eragina; hori dela eta, adostasun zabala lortu behar da aipatu ereduak zehazteko, betiere herritarren borondatea eta zilegi diren interesak errespetatuz.

IV.2. NAFARROAKO TOKI ENTITATEAK 2004KO EKITALDIAN ARAUTZEN DITUEN ARAUMULTZOA

2004ko ekitaldian, toki sektorearen arloan aipatu beharreko arau batzuk onetsi dira. Udal antolamendua gaurkotu eta estatuko aurreikuspenen arabera egokitu da. Udalaren dirusarreraren gailua, 2005-2008 laurtekorako Nafarroako tributuen parte-hartze funtsa osatzen duten transferentzia arruntak eta kapital transferentziak onetsi dira. 2005ean, hainbat udal tributuen antolamendua aldatu da. Udalen funtzio publikoan eragina izan du kontratupeko langile finkoak funtzionario bihurtzeko aukerak, polizia kidegoetako langileen erregelamenduaren argitalpenak eta idazkari eta kontu-hartzaile lanpostu hutsak betetzeko aparte-prozedura onetsi izanak. Etxebizitza babestuen sustapenean, eragina izan du legez adjudikazioarako baremo bakarra ezarri izanak. Azkenik,

estatuak udalen kontabilitaterako jarraibide berriak onetsi ditu, etorkizunean kontabilitatea normalizatzeko prozesu baten abiapuntua jarriz.

IV.2.1. Urriaren 29ko 11/2004 Foru Legea, Nafarroako toki araubidea gaurkotzekoa.

Toki gobernuaren modernizaziorako neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legean aurreikusitako antolaketa berrira egokitzen ditu Nafarroako arauak. Iruña hiriari hiri handien araubidea aplikatzen dio eta, gainerako udaletarako, estatu mailako aurreikuspen batzuk biltzen ditu, organoei eta quorumari eta komunitateen arteko mankomunitateei dagokienez.

Udaletako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostu hutsak betetzeko aparte-prozedura bat ezartzen du, Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legeko hirugarren xedapen iragankorrak izan duen indarraldi luzeak sortutako egoera anomaloari konponbidea emateko.

Lanpostu horietarako deia egin zen, eta haien ebazpena gaur egun geraturik dago, aurkatu egin baitzen.

IV.2.2. Udaletako dirusarrerak

Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2005etik 2008ra bitarteko aurrekontu-ekitaldiarako ezartzen dituen abenduaren 3ko 17/2004 Foru Legea.

Kapital transferentzietan dagokienez, haien banaketa 2005-2008 eperako toki azpiegituren planari buruzko urriaren 29ko 12/2004 Foru Legeak egin zuen; lege horrekin udal eta kontzejuen eskumeneko zerbitzuei lotutako obren koordinazioa lortu nahi zen. Erregelamendu bat egin zen, urtarrilaren 24ko 17/2005 Foru Dekretuaz onetsia.

Udal zergetan, 2005era arte, ez da aldaketarik izan. Abenduaren 29ko 20/2005 Foru Legeak Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 legea aldatu zuen.

IV.2.3. Udal funtzio publikoa

Nafarroako toki entitateetako langile finkoak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuan sartzeko prozedura arautzen duen Erregelamendua, uztailaren 5eko 258/2004 Foru Dekretuaz onetsia. Aukera bakarra ematen die langile horiei, toki entitateak erabakia hartuta, estatutu horretan sartzea ala ez sartzea erabaki dezaten.

Abenduaren 27ko 718/2003 Foru Dekretua. Nafarroako polizia kidegoetako langileen Erregelamendua. Langile horien hautaketa eta kidegoetan sartzea, lanpostuen betetzea eta sustapena, eskubide eta betebeharrak, diziplina-araubidea eta ohore eta sariak arautzen ditu. 2004ko urtarrilaren 31n hartu zuen indarra.

Ohikoa denez, Aurrekontu Legea garatzeko, urtarrilaren 26ko 15/2004 Foru Dekretuaren bitartez, 2004. ekitaldirako Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen lansariak ezarri ziren, eta ordainsari horiek eskubide pasiboetan izanen zuten eragina.

IV.2.4. Etxebizitza

Ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legea, Nafarroan etxebizitzari babes publikoa emateari buruzkoa. Arloari buruzko helburu orokor batzuk ezarri ondoren, berdinak Nafarroako administrazio guztietarako, eta errehabilitazioaren arloan, gazteentzako etxebizitza babestuen arloan eta beste arlo batzuetan sustapen-jarduerak adierazi ondoren –haie-tan guztietan, udalen inplikazioa behar da–, baremo bakarra ezartzen du etxebizitza publiko babestua adjudikatzeko, hain zuzen ere toki entitate guztientzat loteslea izanen dena.

IV.2.5. Udal kontabilitatea

Azkenik, esan beharra dago estatu mailan Toki Ogasunei buruzko Legearen testu bategina onetsi zela, bai eta azaroaren 23ko EHA/4040; 4041 eta 4042/2004 aginduak ere; agindu horien bitartez, toki kontabilitatearen eredu normala, sinpletua eta oinarritzkoaren jarraibideak onetsi ziren. 2006 urtarrilaren 1ean hartu zuten indarra.

Nafarroako toki administrazioarako kontabilitate instrukzio orokorra onetsi zuen irailaren 21eko 272/1998 Foru Dekretu indardunak, aitzinsolasean, administrazio publikoen artean kontabilitate arloko normalizazioa lortzeko behar argia azpimarratu zuen; hori dela eta, etorkizunean, estatuko arau berriak hartu beharko dira aintzat.

IV.2.6. Beste alderdi orokor batzuk

Toki entitateei aplikatzekoa zaien esparru juridikoa dela eta, Comptos Ganberak ondokoa utzi nahi du jasota:

1. Nafarroako toki sektoreari administrazio-arrazoizkotasun handiagoa emate aldera Toki administrazioari buruzko 1990eko Foru Legean ezarritako bideek ez dute eman bilatzen zen fruitua, eta emaitzak eskasak izan dira; izan ere, Nafarroako toki entitateen nahiz haien menpeko erakunde eta ente-en kopurua etengabe handitu da azken urteotan.

2. Halaber, antzeman dugu toki entitateek ez dituztela igortzen Kontratazio Administrazioarako Batzordearen Kontratuen Erregistro Publikora eginiko kontratu guztiak; erregistro hori Kontratuei buruzko Foru Legeko 163. artikuluan ezarri zen. Horri dagokionez, 2006. urtean zehar kontratuei buruzko foru lege berriak indarra hartzeak funtsezko aldaketak ekarri behar ditu.

3. Toki sektorea osatzen duten gainerako entitateei buruzko finantza-informazioa edukitzea komeni da, batez ere merkataritza-sozietateei buruzkoa, Toki ogasunei buruzko Foru Legean ezarritakoarekin bat.

Horren inguruan gogorarazi beharra dago 270/1998 Foru Dekretuak aipatzen duela ezen “bateratze egoera-orria... ez dela nahitaez bete beharrekoa izanen aplikatzekoa den bateratze arauak garatu arte”.

Hori guztia kontuan hartuta, toki entitateak arautzen duen lege-esparruari dagokionez, honakoa gomendatu behar dugu:

- *Botere publikoek osa ditzatela toki entitateei buruzko arau-multzoaren xedapenak, toki entitate horiek eskura izan ditzaten indarreko legediak ezartzen dituen lanabesak eta bitartekoak, eta, horrela, euren baliabideak eraginkortasun handiagoz kudeatzeko aukera izan dezaten. Gai horretan, diseinatu beharreko administrazio ereduak aintzat hartu beharko du Nafarroako toki entitateen taxuketa anitza –tamaina, bitartekoak eta giza baliabideak–, arauetako eskakizunak egokitzeko, eta legedia indardunean ezarrita dauden neurriak hartu behar dira foru komunitateko toki sektorearen administrazio arrazoizkotasunaren maila areagotzeko, toki esparruan hobeki eman daitezten zerbitzuak.*

- *Toki enteent eta euren merkataritza-sozietate publikoen finantza-informazioaren aurkezteari eta bateratzeari dagozkion eta egoki diren legegintza-neurriak hartu behar dira, sozietate horiek eginiko jarduerari eta, ondorioz, toki sektore publiko guztuari buruzko ikuspegi osoa emateko.*

IV.3. EGINDAKO FISKALIZAZIO TXOSTENAK

Txosten honetako "norainokoa" atalean ikusi den legez, 18 entitate fiskalizatu dira, 29 erakunde autonomo dituztenak, eta horiei buruzko txostenak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Comptos Ganberaren web orrian daude argitaratuta.

Horiek denak argitaratuta daudenez, txosten horietan esaten denari gagozkio.

Oro har, bilakaera positiboa izan du Nafarroako Comptos Ganberak azken urteotan fiskalizatutako entitateen kudeaketak, batez ere aldiro ikuskatu izan direnenak Hartara, guztira 17 txostenetan, aldeko iritzia eman da, salbuespen batzuekin, normalean inbentarioak ez gaurkotzeagatik; txosten bakarrean, berriz, kontuei eta legediaren betetzea-ri buruzko ezezko iritzia eman da.

Ondokoak dira behin eta berriz errepikatu diren gomendioak:

- Beti gaurkotzen joanen den ondasunen inbentario bat egitea.
- Aurrekontua eta haren likidazioa ezarritako epeetan onestea.

- Kontabilitate egoera-orri bateratuak egitea (udalean eta erakunde autonomoetan) eta erakunde autonomoen jarduerarengan gainean udalek duten kontrola areagotzea.

- Hurrengo ekitaldietarako bideragarritasun plan bat edo plan finantzario bat prestatzea, udal batzuek oreka finantzarioa berreskuratu ahal izan dezaten eta gehiegizko zorpetzea saihesteko.

- Patronatu batzuk udal zerbitzu bilakatzeko aukera aztertzea; izan ere, haien baliabide ia guztiak udalek jartzen dituzte.

- Aurrekontu-eredu bat ezartzea, eraginkortasuna analizatzeko ezinbestekoak diren helburu eta adierazleak bilduko dituena.

- Kontrol handiagoa obrak egiteko epeetan.

IV.4. NAFARROAKO TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN FINANTZA EGOERA 2004an

Eranskinean aurkezten da Toki Administrazioiko Departamentuak Nafarroako toki sektore publikoaren finantza egoerari buruz 2004an egindako txostena.

	2004	2003
Aurrekontu-emaiza doitua	34,7 milioi	18,5 milioi
Aurrezpen garbia	56,7 milioi	36,9 milioi
Zorpetze ahalmena	ehuneko 11,1	ehuneko 7,9
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	94 milioi	68,2 milioi
Zorra, guztira	216,4 milioi	192 milioi
Zor bizia biztanleko	372 euro	333 euro

Gastuak ondoko arloetan egiten dira batez ere: inbertsioak (ehuneko 34), langileak (ehuneko 27) eta ondasun arruntak eta zerbitzuak (ehuneko 25); horien finantzazioa, berriz, transferentzietatik (ehuneko 48) eta tributu bidezko dirusarreretatik (ehuneko 35) heldu dira.

Gastuak kode funtzionalen arabera aztertuz gero, azpifuntzio nagusiak ondokoei dagozkie:

	% 2004	% 2003
Hirigintza eta arkitektura	17,7	17,6
Entitatearen administrazio orokorra	9,0	8,6
Pentsioak eta antzeko bestelako prestazio ekonomikoak	7,1	6,6
Kirolaren sustapena eta zabalkundea	7,0	9,4
Uren saneamendua, homidura eta banaketa	6,4	7,1
Kulturaren sustapena eta zabalkundea	4,9	4,2
Segurtasuna eta udaltzaingoa	4,6	4,5
Atsedeneko eta aisialdiko bestelako jarduerak	3,8	3,4
Zaborrak bildu, tratatu eta deuseztatzea	3,6	2,6
Finantza-karga	3,5	5,0
Honaino, guztira	67,60	69,00

Hona azken urteotako bilakaera:

	2004	2003	2002	2001
Gastuak				
Aruntak, ehunekotan	60,1	56,2	58,0	54,3
Kapitalezkoak, ehunekotan	39,9	43,8	42,0	45,7
Dirusarrerak				
Aruntak, ehunekotan	68,1	68,9	66,4	65,3
Kapitalezkoak, ehunekotan	31,9	31,1	33,6	34,7

2001etik 2004ra bitarte, ikusi da gastu arruntek pisu handiagoa hartu dutela aurreko urteetan zutena baino, eta, horrenbestez, kapital gastuek pisu txikiagoa dutela. Bestalde, dirusarreretan arruntek ehuneko txikixeagoa egiten dute aurreko ekitaldian baino, baina handiagoa da 2002an eta 2001ean baino.

Dirusarrerak nondik heldu diren aztertzen badugu, egonkortasun moduko bat dagoela ikusten da; ondoko taulan ikus daitekeenez, transferentziak dira garrantzitsuenak:

	(ehunekoak)			
Dirusarreraren jatorria	2004	2003	2002	2001
Tributu bidezko dirusarrerak (1+2+3)	35	34	32	31
Transferentziak (4 eta 7, hirigintza gabe)	43	44	42	40
Hirigintza	6	4	7	12
Finantza eragiketak	8	8	4	7
Ondarezkoak (5+6)	9	10	15	10
Guztira	100	100	100	100

Ondoko taula honetan islaturik dago zein izan den gastu eta dirusarrera arrunten bilakaera 2001etik 2004ra:

	2004	Aldaketaren % 2004/03	Aldaketaren % 2004/01	2003	Aldaketaren % 2003/02	2002	2001
Gastu arruntak (1etik 4ra)	435.553.722	7,0	26,4	407.227.778	8,6	374.884.116	344.624.619
Biztanle bakoitzeko gastu arruntak	746	5,8	20,0	705	6,6	662	621
Gastu arruntak (1etik 5era)	512.763.184	7,9	23,7	475.238.266	4,4	455.337.019	414.665.272
Dirusarrera arruntak biztanleko	878	6,7	17,4	823	2,4	804	748
Tributu bidezko dirusarrerak (1+2+3)	261.699.516	11,1	31,2	235.630.848	6,8	220.699.217	199.456.137
Tributu bidezko dirusarrerak (1+2+3) biztanleko	448	9,8	24,6	408	4,7	390	360
Erreferentziazko populazioa	584.071			577.500		566.487	554.604

Populazioa ehuneko 5,3 hazi den epe horretan:

- Gastu arruntak ehuneko 26,4 hazi dira, baina igoera ehuneko 20koa baizik ez da biztanleko aztertuz gero.

- Gastu arruntak ehuneko 23,7 igoera dira, baina biztanle bakoitzeko aztertuz gero ehuneko 17,4koa da igoera.

- Tributu bidezko dirusarrerak ehuneko 31,2 igo dira, baina biztanleko aztertuz gero ehuneko 24,6koa da igoera.

Honako hau izan da azken urte hauetako zorraren bilakaera:

	2004	2003	2002	2001
Zorra, guztira (euroak, milioitan)	216	192	173	170
Zorra/biztanlea (eurotan)	372	333	306	314

Datu horien arabera, 2001 eta 2004 bitartean zorra ehuneko 27 igo da, nahiz eta biztanleko zorra ehuneko 18 soilik igo.

Eranskinaren bigarren partean sartu dira udal bakoitzari buruzko datuak, eta, aldez aurretik, zortzi biztanle-tarteei buruzko batez besteko adierazle batzuk (500 biztanletik 50.000 biztanletik gorako udalei buruzkoak), halako moduz non entitate bakoitza bere biztanle-tarte berekoen batez beste-koarekin konpara daitekeen.

Komenigarria litzateke zergen likidazioari buruzko datuak biztanleka aurkeztea, konparazioak errazteko. Halaber, urte batzuetako adierazleak sartzek entitate bakoitzaren bilakaeraren ikuspegi hobea emanen luke.

Auditore Jesús Muruzabal Lerga jauna da lan hau egitearen arduraduna, eta berak proposaturik eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

2007ko lan-egutegiaren aldaketa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko martxoaren 26an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2007ko lan-egutegian ez dator zehaztuta zein izanen den hauteskundeak deitzeko foru dekretua onesten denetik parlamentu berria eratu bitarteko lan-ordutegia. Beraz, ikusita legelari nagusiak horri buruz eginiko txostena, eta bat etorritik Nafarroako Parlamentuko ordezkarien eta Langileen Batzordearen arteko 2002 eta 2003. urteetarako hitzarmeneko 3.2 artikuluekin, indarrean dagoen hitzarmeneko 3. eta 10. artikuluekin nahiz Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 37. artikuluekin, honakoa ERABAKI DA:

1. Mahaiak 2006ko abenduaren 26an hartutako erabakia aldatzea –haren bidez, 2007ko lan-egutegia onetsi zen–, eta 2. bis atal berria sartzea. Hona testua:

“2. bis. Apirilaren 9tik ekainaren 17ra bitarte, goizeko txandan beteko da lanaldia.”

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2007ko martxoaren 26an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin